



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2018ko azaroaren 28ko EBAZPENA, 2018-2019 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako laguntza berriak ebazten dituena.

Hezkuntza sailburuaren 2018ko maiatzaren 2ko Aginduak, 2018-2019 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako laguntza berriak emateko eta hauek berrizteko prozesua arautu eta deitu zituen.

Agindu horren 32.artikuluaren arabera, laguntzak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakar eta espresuaren bidez gauzatuko da, ebaluazio-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta ebaluazio-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programarako dirulaguntzak 2018-2019 ikasturterako, jaso behar duten ordainsari gordina, ezarpen zentroa eta horiek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

Hirugarrena.- 2018ko maiatzaren 2ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroak 28



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ADOLFO MORAIS EZQUERRO